

Ikasle ohien bilera

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Gero eta zabalduago dago gure artean eskolan aspaldi elkarrekin ibilitako jendea berriro biltzea. Gai horri buruz jardungo dugu sekuentzia honetan, irratsaio bat oinarri hartuta.

*Amaia Agirre ikasle ohiekin elkartzekoa da, eta gai horri buruz hitz egin du **audio** honetan.*



1- Entzumenaren ulermena

Audioa entzun gabe, pentsatu ondorengo galderaren erantzuna. Segidan, entzun audioa eta markatu erantzun zuzena. Asmatu al duzu?

Amaiak hauetako zein gai ez du apenas aipatzen?

- Ikaskideek izandako aldaketak azken urteetan.
- Garai hartako irakasleak
- Ikasle-garaiarekiko nostalgia

Entzun Amaia Agirreren gogoeta eta esan ondo esaldiak egia ala gezurra diren.

	EGIA	GEZURRA
Hizlariaren ustez, bada zerbait denborak ez daramana: nostalgia.		
Urteak nola igarotzen diren begiratzea atsegin du hizlariak.		
Whatsapp-en bidez jaso du ikaskide ohiekin bazkaltzeko gonbita.		
Ikaskideak nola aldatu diren ikusteak tristura ematen dio Amaiari.		
Unibertsitatean ikaskide izan zituenekin elkartuko da.		
Ez dauka bazkari horretara joateko gogorik.		
Inkontzienteki bada ere, holako topaketetan beti konparatzen dugu geure burua besteenarekin.		

Zergatik sentitzen dugu	1		ikuskitzen dago.
Zortzigarren mailan gelakide izan nituenekin			itsustu eta zahartu egin dela ziurtatu.
Besteen bizimoduaren arabera,			eta ez baranda moduan.
Iragana zubi moduan erabili behar da			elkartuko naiz hemendik ordu gutxitara.
Hamalau urterekin denok desio genuen mutil hura		1	aspaldi egon gabekoekin elkartzeko premia?
Nigatik zer pentsatzen zuten			ez ote dugu gurea epaituko?

2- Hala ote da?

Testuan Amaiak zalantza eta galderak adierazteko, askotan erabiltzen du "ote" partikula:

*Inork nire bidearen berri **ba ote** daki? / Orain elkar ulertzeko **gai** (izango) **ote gara**?*

Zalantza adierazten du **ote** partikula modalak. Aditzaren aurrean joaten da (aditz konposatuetan, aditz laguntzailearen aurretik). Askotan ez da erantzunik espero, galdera erretorikoa da:

- *Zergatik **ote naiz** hain ezkorra?*
- ***Ez ote dute etorri nahi**?*
- ***Ez dakit egia ote den***

Osatu ondorengo esaldi hauek, parentesi arteko aditza eta ote partikula erabiliz. Erreparatu 1. esaldiari.

- 1- Orain non eta nola **ote dabilta**? (haiek ibili)
- 2- Jakin-min horrek tiraka _____ ordu gutxi barru (gu elkartu)
- 3- Edo _____ bestela? (ez izan)
- 4- Gure burua _____ besteak nola dauden ikusita? (ez kokatu nahi)
- 5- Oraintxe etorri dira oporretatik. Ondo _____ ? (pasatu)
- 6- Mikel ez dago hemen. Etxera _____ ? (joan)
- 7- Nor _____ hor dagoen bizardun hori? (izan)
- 8- Nolakoa _____ gure aiton-amonen garaiko gizartea? (izan)
- 9- Aspaldian ez dut Maddalen ikusi. Non _____ emakume hori? (ibili)
- 10- _____ bizitzarik Marten? (egon)

3- Irakasle xelebrea haiek

Hemen dituzu Amaia Agirrek esandako ideia batzuk.


- Zu elkartzen al zara garai bateko ikasleekin (edo elkartuko al zinateke)?
- Amaiak dio horrelako kasuetan 3 galdera egiten ditugula beti: Non ari zara lanean? Non bizi zara? Seme-alabarik bai?... Zuk beste galderarik egingo al zenuke?
- Amaiaren ustez, denok daukagu halako morbo bat txikitako edo gaztetako lagunak zenbat aldatu diren jakiteko. Ados?

Horrelako ikaskide ohien bileretan hizpide izaten dira, askotan, garai bateko ikasle edota irakasle xelebrea. Horrelakorik izan al zenuen zuk?

Irakurri ondorengo testua eta irakasle xelebrea honen deskribapenean kokatu falta diren aditz laguntzaileak lehenaldian. Gero, ereduan bezala, **idatzi** zeuk garai bateko ikaskide edota irakasle baten deskribapena: Nolakoa zen, zer egiten zuen, hari gertatutako pasadizoren bat...

Tximas, irakasle xelebrea hura

Peru Agirre maisuak Tximas _____ ezizena. Burusoila _____ eta, noizbait, ikaskideren bati izengoiti hori jartzea bururatu _____, haren ile faltari burla egiteko. Goitzenak arrakasta handia izan _____ eta urte gutxiren buruan eskolako guztiek horrelaxe ezagutzen _____. Tximas lagunkoia eta jatorra zen... umore onez zegoenean. Jatorriz, eibartarra _____ eta oso euskaltzalea, eta euskararekiko maitasun hori ikasleoi kutsatu _____.



Ostiralero eskusoinua ekartzen _____ gelara eta euskal kanta zaharrak irakasten _____ (guri). Ez _____ musikari trebea, baina guri berdin _____, akordeoia joz liluratu egiten _____ (gu). Hori bai, Tximas, bere onetik ateratzen zenean, munstro bilakatzen _____, izaera guztiz aldatzen _____.

Behin, Pablito izeneko bat begitan hartu _____, berak eskusoinua jotzen _____ bitartean, zarata ateratzen zuelako. Harengana joan _____, belarrietatik hartu _____, eta zaplazteko sonatua jo _____. Pablito gixajoak, beldurraren beldurrez, praktetan txiza egin _____. Egun horretatik aurrera Pablitori Txizati ezizena jarri _____ ikaskideek. Gaur egun, ordea, Pablo jauna _____, Donostiako orfeoiko abeslari bakarlaria.

ERANTZUNAK

1- Entzumenaren ulermena

- Amaiak hauetako zein gai ez du apenas aipatzen?  Garai hartako irakasleak

- Egia ala Gezurra

Hizlariaren ustez, bada zerbait denborak ez daramana: nostalgia. **E**

Urteak nola igarotzen diren begiratzea atsegin du hizlariak. **G**

Whatsapp-en bidez jaso du ikaskide ohiekin bazkaltzeko gonbita. **E**

Ikaskideak nola aldatu diren ikusteak tristura ematen dio Amaiari. **G**

Unibertsitatean ikaskide izan zituenekin elkartuko da. **G**

Ez dauka bazkari horretara joateko gogorik. **G**

Inkontzienteki bada ere, holako topaketetan beti konparatzen dugu geure burua besteenarekin. **E**

Zergatik sentitzen dugu	1	6	ikuskizun dago.
Zortzigarren mailan gelakide izan nituenekin	2	5	itsustu eta zahartu egin dela ziurtatu. eta ez
Besteen bizimoduaren arabera,	3	4	baranda moduan.
Iragana zubi moduan erabili behar da	4	2	elkartuko naiz hemendik ordu gutxitara.
Hamalau urterekin denok desio genuen mutil hura	5	1	aspaldi egon gabekoekin elkartzeko premia?
Nigatik zer pentsatzen zuten	6	3	ez ote dugu gurea epaituko?

2- Hala ote da?

1. Orain non eta nola ote dabilta? (haiek ibili)
2. Jakin-min horrek tiraka (elkartuko ote gara) ordu gutxi barru? (gu elkartu)
3. Edo (ez ote da) bestela? (ez izan)
4. Geure burua (ez ote dugu kokatu nahi) besteak nola dauden ikusita? (ez kokatu nahi)
5. Oraintxe etorri dira oporretatik. Ondo (pasatu ote dute)? (pasatu)
6. Mikel ez dago hemen. Etxera (joan ote da)? (joan)
7. Nor (ote da) hor dagoen bizardun hori? (izan)
8. Nolakoa (ote zen) gure aitona-amonen garaiko gizartea? (izan)
9. Aspaldian ez dut Maddalen ikusi. Non (ote dabil) emakume hori? (ibili)
10. (Ba ote dago) bizitarik Marten? (egon)

3- Irakasle xeble haiek

Tximas, irakasle xeble hura

Peru Agirre maisuak Tximas **zuen** ezizena. Burusoila **zen** eta, noizbait, ikaskideren bati izengoiti hori jartzea bururatu **zitzaion**, haren ile faltari burla egiteko. Goitzenak arrakasta handia izan **zuen** eta urte gutxiren buruan eskolako guztiek horrelaxe ezagutzen **zuten**. Tximas lagunkoia eta jatorra zen umore onez zegoenean. Jatorriz, eibartarra **zen** eta oso euskaltzalea, eta euskararekiko maitasun hori ikasleoi kutsatu **zigun**. Ostiralero eskusoinua ekartzen **zuen** gelara eta euskal kanta zaharrak irakasten **zizkigun** (guri). Ez **zen** musikari trebea, baina guri berdin **zitzaigun**, akordeoia joz liluratu egiten **gintuen** (gu). Hori bai, Tximas, bere onetik ateratzen zenean, munstro bilakatzen **zen**, izaera guztiz aldatzen **zitzaion**.

Behin, Pablito izeneko bat begitan hartu **zuen**, berak eskusoinua jotzen **zuen** bitartean, zarata ateratzen zuelako. Harengana joan **zen**, belarrietatik hartu **zuen**, eta zaplazteko sonatua jo **zion**. Pablito gixajoak, beldurraren beldurrez, praktetan txiza egin **zuen**. Egun horretatik aurrera Pablitori Txizati ezizena jarri **zioten** ikaskideek. Gaur egun, ordea, Pablo jauna **da**, Donostiako orfeoiko abeslari bakarlaria.